

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 17/2022 Foru dekretua, apirilaren 26koa. Onestea COVID-19ak eragindako eraginaren ondorioz laguntzen epe esparruan sartzen diren abeltzaintza eta nekazaritza sektoreari laguntzeko aparteko laguntzen aldi baterako araubideko oinarri arautzaileak, 2021-2022 aldian

COVID-19 birusa munduan zabaltzearen ondorioz deklaraturako pandemiak osasun publiko nazioarteko krisi larria eragin du. Hori dela eta, alarma egoera deklaratu behar izan zen Espainia guztian, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez.

Horren ondorioz, garrantzi handiko neurriak hartu ziren, ekonomia eta gizarte jardueran eragina izan zutenak eta ondorio larriak izan zituztenak herritar guztien eguneroko bizitzan. Horrek guztiak oso eragin negatiboa izan zuen gizartearen arlo askotan.

Krisi horren ondorio kaltegarriak bereziki larriak izan dira gizarte eta ekonomia sektore jakin batzuetan, eta beharrezkoa da Arabako Foru Aldundiak neurriak hartzea sektore kaltetuenak suspertzeko eta bultzatzeko.

Nekazaritza eta abeltzaintza jarduera une oro eta krisiaren hasieratik funtsezko jardueratzat hartu da, eta biztanleak janariz hornitzeko ekoizpen jarduera ez da gelditu. Hala ere, zenbait ekoizpen sektoretan errenta galera handiak izan dituzte, bereziki animalien elikadurarako pentsuen mendeko abeltzaintza ustiategietan, merkaturatze zirkuituetan aldaketak izan direlako eta biztanleen kontsumo ohitura jakin batzuk ezinbestean aldatu direlako.

Alarma egoera indarrean egon den aldian, eta are hartatik kanpo ere, pertsonen mugikortasunaren eta bestelako murrizketa garrantzitsuak ezarri dira, eta horrek izugarri mugatu ditu merkataritza eta ostalaritza jarduerak. Horrek neurri handi batean baldintzatu du abeltzaintza ustiategiaren jarduera, abeltzaintzako produktuak merkaturatzeko ohiko zirkuituak nahiz biztanleen kontsumoa aldatu baitira. Horren ondorioz, zenbait abeltzaintza produkturen prezioek nabarmen egin dute behera.

Gainera, eragin hori are larriagoa izan da aldi horretan bizitako nazioarteko ezegonkortasun ekonomikoagatik, zeinak esnearen eta okelaren prezioen beherakada eragin baitu Europako soberazko merkatuetan, eta beste herri batzuetako merkatuetarako okelaren irteera mugatu. Horrek guztiak nabarmen murriztu ditu Arabako abeltzaintza ustiategiaren diru sarrerak, eta arriskuan jarri du haietako askoren bideragarritasuna.

Eta are gehiago okerragotu du abeltzaintza sektoreen emaitzen kontua batez ere lehengaien prezioen gorakadak (zerealena, artoarena eta soiarena, besteak beste) eragindako pentsuen garestitzeak. Igoera hori zenbait herrialderen eskaria handitzearen ondorioz gertatu da, edo kontrako klimatologia dela-eta zereal ekoizle handienentzako aurreikuspenak gutxitzeak eraginda. Horren guztiaren ondorioz, abeltzain askok galerak izan dituzte, ezin izan baitute prezioen igoera hori bezeroekiko kontratuetan jasanarazi.

Bestalde, erremolatxa eta patata dira aspaldidanik Arabako lurraldeko urteko labore ureztatu garrantzitsuenak. Ikuspegi sozioekonomikotik, esan daiteke lehorreko labore ohikoek (esaterako, zerealek) baino jarduera ekonomiko handiagoa sortzen duten bi labore direla. Zerbitzu sortzaile handiak dira, eta, gainera, industria produktu osagarriak behar dituzte, hala nola makinak, ongariak edo ontziratze materialak, bai eta beste jarduera osagarri batzuk ere, besteak beste, lehengaiak biltegitratzea eta garraiatzea. Agronomiaren ikuspegi hertsitik, labore horiek ezinbestekoak dira laboreen txandakatze orekatua egiteko.

Garrantzi horretaz jabeturik, Arabako Foru Aldundiak, ohituraz, bi sektore horiek hobetzeko era guztietako ekintzak babestu izan ditu, direla teknikoak, direla ekonomikoak edo aholkularitza-koak, laborantza mota horri eusteko eta nekazaritzako ustiatzearen bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzeko. Horren ondorioz, oso profesionalizatuta dagoen sektore bat sortu da, jarduera modu eraginkorragoan eta ingurumena askoz ere gehiago errespetatuz garatzen duena. Garrantzitsua da nabarmentzea nekazariak laboreak lantzean ingurumena errespetatzen duten jardunbideak baliatzeko duten konpromisoa; besteak beste, ongarri dosiak asko murriztea, estalki berdeak mantentzea, txandakatze zikloak luzatzea, etab.

Inguruabar horiek guztiek arriskuan jartzen dute labore horien etorkizuna, bai eta, ondorioz, Arabako zati handi batean, nekazaritzaren eta ekonomiaren ikuspuntutik, labore txandakatze orekatuaren bideragarritasuna ere.

Azken batean, nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean inoiz ez bezalako egoera berria eragiten dute, 2021eko udazkenetik, pentsuak egiteko lehengaien eskasiak eta prezio garestiak; sargaien, ongarrien, fitosanitarioen edo energiaren prezio handiak, eta hornikuntza katearen arazoak.

Horregatik, aparteko neurriak hartu behar dira nekazari eta abeltzain kaltetuenak (bereziki, esnetarako behiak, haragitarako behiak, gizentzeko behiak, ardiak eta ahuntzak dituztenak; haragitarako eta erruteko hegaztien ekoizpenean eta untzien ekoizpenean dabilzanak, eta azukre erremolatxaren eta patataren ekoizleak) ekoizpen kostuak neurritz kanpo handitzeagatik konpentsatzeko; izan ere, horrek jardueraren errentagarritasuna ez ezik, ustiatze askoren bideragarritasuna ere arriskuan jar dezake, bai eta herritarren elikagai hornidura ere.

Gainera, atomizazio handiak, ekoizpen sektore batzuen egituraketa mugatuak, sektore ekoizleak banatzaile handiekin negoziatzeko duen gaitasun mugatuak, lehengaien eskasiak eta are merkataritza jarduera desleialek ere ustiatze askoren jarduera bertan behera uzteko edo geldiarazteko arriskua areagotzen dute.

Egoera konprometitu horrek Arabako Foru Aldundia behartzen du zuzeneko eta aparteko laguntza ekonomikoak ematera, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik estrategikoa den sektore horrek bizi duen egoera larria arintzeko.

Foru Dekretu honetan planteatutako laguntzak egungo COVID-19 agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko estatu mailako laguntza neurriei buruzko aldi baterako esparruan emango dira. Esparru hori Batzordearen 2020ko martxoaren 19ko Jakinarazpenaren bidez arautu zen, eta haren helburua da oreka egokia bermatzea enpresei emandako laguntza neurrien ondorio positiboan eta barne merkaturako lehian eta merkataritzan eragina izan dezaketen ondorio negatiboan artean. Jakinarazpen hori seigarren aldiz aldatu zuten 2021eko azaroaren 24an, eta 2022ko ekainaren 30era arte egongo da indarrean.

Kontuan harturik laguntza lerro hori ez dagoela jasota Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsitako Dirulaguntza Plan Estrategikoan (otsailaren 2ko 40/2021 Erabakiaren bidez aldatua), bidezkoa da hura aldatzea.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako izapide guztiak bete dira.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea azukre erremolatxa eta patata ekoizleentzako eta abeltzaintza ustiatze-gietarako laguntzen oinarri arautzaileak, foru dekretu honen I. eranskineko testuaren arabera.

Bigarrena. Onestea patata eta azukre erremolatxa ekoizleentzako eta behi azienden ustiatze-gietarako 2022ko laguntzen deialdia, xehetasun hauen arabera:

– Eskerak aurkezteko epea eta lekua: 10 egun baliodun, dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, leku hauetan:

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

– Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroak eta eskualdeetako nekazaritza bulegoak.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek egoitza elektronikoa dagoen izapide zehatzaren bitartez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-excepcionales-en-apoyo-al-sector-ganadero-y-agricola>) telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

– Moduluak:

– Patata eta azukre erremolatxa ekoizleentzako, 225,00 euro hektarea onargari bakoitzeko.

– Esne behien abeltzaintzako (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: esne ekoizpenerako ugalketa edo mistoa), modulua 110 eurokoa izango da esnetarako abere bakoitzeko eta 55 eurokoa bestelako abere bakoitzeko (2022ko apirilaren 30ean 24 hilabete baino gehiago dituen emea). Ez da ezartzen prima jaso dezaketen unitateen gehieneko kopururik.

– Behi inudeen abeltzaintzako (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: haragia ekoizteko ugalketa), modulua gutxituz joango da abere kopuruaren (2022ko apirilaren 30ean 24 hilabete baino gehiago dituen emea) tarte batetik hurrengora:

Lehenengo 75 abereak: 55 euro abere bakoitzeko.

76-150 abere: 40 euro abere bakoitzeko.

151-250 abere: 30 euro abere bakoitzeko.

Diruz lagundu ahal izango dira gehienez ere 250 abere, sailkapen zooteknikoa "haragia ekoizteko ugalketa" duten ustiategietan.

– Gizentzeko txekorren abeltzaintzako (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: gizentzea edo gizenokia edo bigantxa hazkuntza), modulua gutxituz joango da abere kopuruaren (2022ko apirilaren 30ean 6 hilabete baino gehiago eta 24 hilabete baino gutxiago dituen aberea) tarte batetik hurrengora:

Lehenengo 100 abereak: 80 euro abere bakoitzeko.

101-250 abere: 60 euro abere bakoitzeko.

251-800 abere: 50 euro abere bakoitzeko.

Diruz lagundu ahal izango dira gehienez ere 800 abere, sailkapen zooteknikoa "gizentzea edo gizenokia edo bigantxa hazkuntza" duten ustiategietan.

– Ardi eta ahuntzen abeltzaintzako (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: esnea ekoizteko ugalketa), modulua 8 eurokoa izango da abere bakoitzeko (eme ugaltzailea, 2022an egindako urteko nahitaezko aitorpenaren arabera).

– Ardi eta ahuntzen abeltzaintzako (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: haragia ekoizteko ugalketa), modulua 10 eurokoa izango da abere bakoitzeko (eme ugaltzailea, 2022an egindako urteko nahitaezko aitorpenaren arabera).

Diruz lagundu ahal izango dira gehienez ere 1.000 ardi edo/eta ahuntz, sailkapen zooteknikoa "haragia ekoizteko ugalketa" edo "esnea ekoizteko ugalketa" duten ustiategietan.

– Zaldien abeltzaintzako (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: haragia ekoizteko ugalketa), modulua gutxituz joango da abere kopuruaren (2022ko apirilaren 30ean 24 hilabete baino gehiago dituen emea) tarte batetik hurrengora:

Lehenengo 50 abereak: 50 euro abere bakoitzeko.

51-100 abere: 25 euro abere bakoitzeko.

Diruz lagundu ahal izango dira gehienez ere 100 abere, sailkapen zooteknikoa "haragia ekoizteko ugalketa" duten ustiategietan.

– Txerrien abeltzaintzat (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: hautespena), modulua 100 eurokoa izango da eme ugaltzaile bakoitzeko (2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera).

– Txerrien abeltzaintzat (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: txerrikumeen ekoizpena edo ziklo itxiko ekoizpena), modulua 50 eurokoa izango da eme ugaltzaile bakoitzeko (2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera).

– Txerrien abeltzaintzat (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: gizentzea edo gizentokia), modulua 15 eurokoa izango da abere bakoitzeko (2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera).

Diruz lagundu ahal izango dira gehienez ere 2.500 abere, sailkapen zooteknikoa "hautespena", "txerrikumeen ekoizpena edo ziklo itxiko ekoizpena" eta "gizentzea edo gizentokia" duten ustiategietan.

– Untxien abeltzaintzat (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: haragitarako untzikumeak), modulua 6 eurokoa izango da eme ugaltzaile bakoitzeko (2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera). Ez da ezartzen prima jaso dezaketen unitateen gehieneko kopururik.

– Oilo erruleen abeltzaintzat (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: arrautzen ekoizpenerako haztegiak), modulua 2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera izango da:

Kaiolako arrautzen ekoizpena: 0,2 euro abere bakoitzeko.

Landako arrautzen ekoizpena: 1,2 euro abere bakoitzeko.

Arrautza ekologikoen ekoizpena: 1,4 euro abere bakoitzeko.

– Landako oilaskoen edo oilasko ekologikoen abeltzaintzat (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: haragia ekoizteko haztegiak), modulua 2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera izango da:

Landako oilaskoen ekoizpena: 1 euro abere bakoitzeko.

Oilasko ekologikoen ekoizpena: 1,2 euro abere bakoitzeko.

– Txitak hazten dituzten abeltzaintzat (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: haragia edo arrautzak ekoizteko haztegiak), modulua 2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera izango da:

Haragia ekoizteko hazkuntza: 0,3 euro abere bakoitzeko.

Arrautzak ekoizteko hazkuntza: 0,6 euro abere bakoitzeko.

Ez da ezartzen prima jaso dezaketen unitateen gehieneko kopururik arrautzen eta oilaskoen ekoizleentzat eta txitak hazten dituzten abeltzaintzat.

Nolanahi ere, nekazaritza ustiategi batean sailkapen zootekniko bererako hainbat ekoizpen unitate badaude, batera zenbatuko dira unitate horietako abere guztiak. Halaber, ustiategi batek hainbat sailkapen zootekniko baditu, edo hainbat abeltzaintza jarduera egiten baditu, edo/eta abeltzaintza jardueraz gain patata eta/edo erremolatxa lantzen baditu, jarduera bakoitzagatik dagokion laguntza eskatu ahal izango du, Batzordearen 2021eko azaroaren 24ko Jakinarazpean eta haren ondorengo aldaketetan ezarritako mugekin.

Abeltzaintzako ustiategiak 2022ko urtarrilaren 1aren ondoren hasi badira jardueran, eta, beraz, 2022an ez badute 2021eko ekitaldian izandako erroldei buruzko urteko nahitaezko adierazpena egin, laguntza kalkulatzeko erreferentzia erroldaren borondatezko adierazpena izan daiteke, hala dagokionean.

— Kreditu erreserbak: 2.500.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldirako gastu aurrekontuko 40100. G/419400/47900403 partidaren kontura ("Plan A. Nekazaritza ustiategiei laguntzeko neurriak").

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, hasieran erreserbatutako zenbateko berdinez gehienez ere, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsitako Dirulaguntza Plan Estrategikoaren eranskina, zeina otsailaren 2ko 40/2021 Erabakiaren bidez aldatu baitzen, eta haren barruan sartzea xedapen honen eranskinean ager den edukia.

Azken xedapenetako lehenengoa. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

I. ERANSKINA

1. artikulua. Xedea

1.1. Foru dekretu honen xedea da honako ustiategi hauetarako aldi baterako laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea:

- azukre erremolatxaren ekoizleak.
- patata ekoizleak.
- behi ustiategiak.
- ardi eta/edo ahuntz ustiategiak.
- zaldi ustiategiak.
- txerri ustiategiak.
- oilo eta oilasko ustiategiak.
- untxi ustiategiak.

1.2. Laguntza hauek egungo COVID-19 agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko estatu mailako laguntza neurriei buruzko aldi baterako esparrua arautu zuen Batzordearen jakinarazpenari lotzen zaizkio, bai eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua esportaziorako epe laburreko kreditu aseguruari aplikatzeari buruzko aldaketei ere.

2. artikulua. Onuradunak

2.1. Oro har, dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradun izan daitezke Arabako Lurralde Historikoan dagoen nekazaritzako ustiategi baten titular diren eta 1. artikuluan aipatutako abereak dituzten edo patata edo erremolatxa lantzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

2.1.1. Gizarte Segurantzako ordainketak egunean izatea.

2.1.2. Zerga betebeharrak guztien ordainketak egunean izatea.

2.1.3. Onuraduna Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.

2.1.4. Administrazio zehapenik edo zehapen penalik ezarrita ez izatea sexuaren ziozko diskriminazioagatik, eta debekurik ez izatea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakoaren arabera.

Sozietate zibila, ondasun erkidegoa edo titulartasun partekatua bada, ustiategiaren titularraz gain, gainerako bazkideek ere egiaztatu beharko dute 2.1.1 atala.

Deialdi honetatik kanpo daude enpresa publikoak edo kapital publikoa partaide dutenak.

2.2. Azukre erremolatxa eta patata ekoizleek urtero egin beharko dute eskabide bakarra Araban. Bertan, patata eta erremolatxa landatutako lursail guztiak agertu beharko dira eta, gutxienez, 2 hektareako azalera agertu beharko da eskaera bakoitzeko.

2.3 Behi ustiategiek, aurtengo apirilaren 30ean, honako errolda hau edo handiagoa izan beharko dute:

– esne behien eta mistoen abeltzainek, 24 hilabete baino gehiagoko 20 eme ugaltzaile, ekoizpen eta ugalketa ustiategietan; sailkapen zooteknikoa: esne ekoizpenerako ugalketa edo mistoa.

– behi inudeen abeltzainek, 24 hilabete baino gehiagoko 30 eme ugaltzaile, ekoizpen eta ugalketa ustiategietan; sailkapen zooteknikoa: haragia ekoizteko ugalketa.

– gizentzeko txekorren eta bigantxa hazkuntzako abeltzainek, 6 eta 24 hilabete arteko 30 abere, ekoizpen eta ugalketa ustiattegietan; sailkapen zooteknikoa: gizentzea edo gizentokia edo bigantxa hazkuntza.

2.4. Ardien abeltzaintza ustiattegiek, 2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera, 100 eme ugaltzaileko edo gehiagoko errolda izan beharko dute.

2.5. Ahuntzen abeltzaintza ustiattegiek, 2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera, 75 eme ugaltzaileko edo gehiagoko errolda izan beharko dute.

2.6. Zaldien abeltzaintza ustiattegiek, aurtengo apirilaren 30ean, 24 hilabete baino gehiagoko 30 eme ugaltzaile izan beharko dituzte, ekoizpen eta ugalketa ustiattegietan; sailkapen zooteknikoa: haragia ekoizteko ugalketa.

2.7. Txerrien abeltzaintza ustiattegiek, 2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera, honako errolda hau edo handiagoa izan beharko dute:

– Txerrien abeltzainek, 100 eme ugaltzaile; sailkapen zooteknikoa: txerrikumeen hautespena edo/eta ekoizpena.

– Txerrien abeltzainek, gizentzeko 100 animalia; sailkapen zooteknikoa: gizentzea edo gizentokia.

2.8. Untxien abeltzaintza ustiattegiek, 2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera, 300 eme ugaltzaileko edo gehiagoko errolda izan beharko dute.

2.9. Erruteko oiloen abeltzaintza ustiattegiek, 2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera, honako errolda hau edo handiagoa izan beharko dute:

– kaiolako ekoizleek, 6.000 oilo.

– beste ekoizpen sistema batzuetako ekoizleek, 300 abere.

2.10. Landako oilaskoen eta oilasko ekologikoen abeltzaintza ustiattegiek, 2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera, 300 abereko edo gehiagoko errolda izan beharko dute.

2.11. Txitak hazten dituzten abeltzaintza ustiattegiek, 2022an egindako urteko nahitaezko aitortenaren arabera, 1.000 abereko edo gehiagoko errolda izan beharko dute.

3. artikulua. Laguntzen era eta zenbatekoa

3.1. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza batean datza laguntza, eta haren modulua eta prima jaso dezaketen unitateen gehieneko kopurua, halakorik badago, laguntzaren deialdian ezarriko dira.

3.2. Erremolatxa eta patata ekoizleentzako, modulu bat ezarriko da, hektareako eurotan.

Ordainketarako, kontuan edukiko dira uneko urteko eskabide bakarrean erremolatxa, erieteko patata edo jateko patata bezala deklaraturako lur guztiak.

3.3. Abere ustiattegientzat, deialdian zehaztuko den egunean edo egunetan ustiategian dauden abereekin loturiko modulu bat ezarriko da.

4. artikulua. Dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura

4.1. Laguntzak emateko prozedura lehia araubidean izapidetuko da, eskaera aurkeztu eta gero. Hala eta guztiz ere, laguntza hauen xedea kontuan hartuta, ez da balorazio irizpiderik ezarri, eta hainbanaketa egin beharko da, baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei gehieneko kopurua emateko behar besteko kreditu erreserbarik ez balego.

Hala izatekotan, zenbatekoak proportzionalki murriztuko dira, dagoen kreditu erreserba kontuan hartuta.

4.2. Laguntzak eman eta berehala ordainduko dira.

5. artikulua. Eskaerak aurkezteko lekua, epea eta modua

5.1. Laguntzen deialdian, honako hauek jaso behar dira:

- Laguntza eskabideak aurkezteko epea eta lekua.
- Aurrekontu partida eta erreserbatzen den kreditua.
- Uneko deialdirako ezarritako ordainketa moduluak eta prima jaso dezaketen unitateen gehieneko kopurua, halakorik badago.

5.2. Laguntza eskabidea inprimaki normalizatuan aurkeztu behar da (II. ERANSKINA).

6. artikulua. Izapidetzea, ebazpena eta jakinarazpena

6.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, azukre erremolatxa eta patata ekoizleei lotutako espedienteak Zuzeneko Laguntzen Zerbitzuak izapidetuko ditu. Abere ustiatuei lotutako espedienteak Abeltzaintza Zerbitzuak izapidetuko ditu, eta kide anitzeko balorazio organoak proposatuta, dagokion foru organoak ebatziko ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari. Ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, indarrean den araudiaren arabera. Dena den, aukerako berraztertze errekurtsua ere jarri ahal izango da.

6.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, gehienez ere sei hilabete izango dira prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarota, esanbidezko ebazpenik hartu eta jakinarazi ez bada, ulertu beharko da eskaerari ezezkua eman zaiola administrazioaren isiltasunez.

6.3. Arabako Foru Aldundiak egiaztatuko du administrazio betekizunak betetzen direla. Eskaeran akatsak daudela, eskabidea osorik bete ez dela edo agiriren bat falta dela ikusten badu, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta hark 10 egun baliouduneko epea edukiko du eskatutako agiriak aurkezteko, jakinarazpena egiten zaion egunetik aurrera zenbatuta, larunbatak aintzat hartu gabe. Agiriak adierazitako epearen barruan aurkeztu ezean, eskaera iraungi eta artxibatu egingo da.

Aipaturiko baldintzetakoren bat betetzen ez bada, laguntza gozatzeko eskubidea galduko da eta jasotako dirua itzuli beharko da, eta harekin batera, jasotako zenbatekoek sortutako legezko interesak ere. Gainera, indarreko arautegiaren arabera bidezkoak diren egintzak ere abiarazi ahal izango dira.

7. artikulua. Egiaztatzea eta ikuskatzea

Nekazaritza Sailak beharrezkoak diren egiaztapenak eta ikuskapenak egingo ditu, ustiatuei onuradunei eskatzen zaizkien baldintzak betetzen direla egiaztatzeke; besteak beste, eskatzailea Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela egiaztatzeke.

Laguntza eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak Nekazaritza Sailari baimena ematea zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria zuzenean eskuratzeko. Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita uka dezake baimen hori, eta berak aurkeztu beharko ditu eskakizun horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

8. artikulua. Kide anitzeko balorazio organoa

Honako hauek edo haiek eskuordetutako pertsonak osatuko dute kide anitzeko balorazio organoa:

- Zuzeneko Laguntzen Zerbitzuaren burua.
- Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.
- Abeltzaintza Zerbitzuaren burua.

9. artikulua. Bateragarritasuna

9.1. Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio batzuek helburu bera betetzeko ematen dituztenekin.

9.2. Edonola ere, eta aurreko atalean adierazitako bateragarritasuna gorabehera, esparru honetan jasotako neurriengatiko laguntzak ezin dira 290.000,00 eurotik gorakoak izan nekazaritza produktuen ekoizpen primarioan diharduten enpresa aktibo bakoitzeko, bat etorritik egungo COVID-19 agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko estatu mailako laguntza neurriei buruzko aldi baterako esparrua arautu zuen Batzordearen jakinarazpenarekin, bai eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua espportaziorako epe laburreko kreditu aseguruari aplikatzeari buruzko aldaketekin ere, . Hala gertatuz gero, murriztu egingo dira laguntzak, gehieneko muga ez gainditzeko.

10. artikulua. Ondorioak eta onuradunen betebeharrak

Foru dekretu honetan jasotako laguntzen onuradunek honako hauetan ezarritako araudia-
ren pean egongo dira: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako arautegi aplikagarria.

Halaber, behartuta daude Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak eta eskumena duten gainerako organo guztiek eskatzen dieten informazio guztia ematera.

11. artikulua. Laguntzak berraztertzea

Laguntza bat emateko kontuan hartutako baldintzetako bat aldatzen bada, berriro aztertuko da haren zenbatekoa.

12. artikulua. Itzultzeak eta zuzenketak


Laguntzaren xedea betetzen bada, baina dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, hura emateko ebazpena ere aldatu ahalko da.

Onuradunek ez badituzte betetzen foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean jasotako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute emandako laguntza jasotzeko eskubidea, eta artean diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko diote nahitaez, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Horrek guztiak ez ditu eragozten Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan xedatutakoaren arabera bidezko diren gintzak.

Itzulitako zenbatekoak zuzenbide publikoko diruzko sarreratzat joko dira, legez dagozkion ondorioetarako.

Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez xedatuko da laguntza guztia edo zati bat itzultzea edo haren zenbatekoa edo ordainketak murriztea, ikuskapen edo kontrol txostena aztertu, itzultzeko edo murrizteko proposamena egin eta onuradunari entzun ondoren.

Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitako arau hausteengatik zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	2022 URTEKO nekazaritza-eta abeltzaintza-sektoreei laguntza-eskaera SOLICITUD DE AYUDAS AL SECTOR AGRARIO Y GANADERO 2022
--	--

Sarrera data ■ fecha entrada	Sarrera Zk. ■ Nº entrada	Ustetiatetia zk. ■ Nº explotación agraria	Eskaera zk. ■ Nº Solicitud
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE (1)

Identifikazio zk. ■ Nº identificativo	Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social	Lehen abizena ■ Primer apellido	Bigarren abizena ■ Segundo apellido		
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>		
Herrialdea ■ País ESPAÑA	Probintzia ■ Provincia	Udalerrria ■ Municipio	Herria ■ Localidad	P. K. ■ C. P.	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)	Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
1 Telefonoa ■ Teléfono 1	2 Telefonoa ■ Teléfono 2	Faxa ■ Fax	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico		
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>		

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)	Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Herrialdea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerrria ■ Municipio	Herria ■ Localidad	P. K. ■ C. P.	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	

ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE

Identifikazio zk. ■ Nº identificativo	Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social	Lehen abizena ■ Primer apellido	Bigarren abizena ■ Segundo apellido
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>


Araudi erregulatzailearen arabera, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Departamendua, honako hauei buruzko ziurtagiriak eta beharrezko informazioa eskatuko dizkio administrazio eskudunari:

- Zerga-betebeharrak betetzea
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea

De acuerdo a la normativa reguladora, el Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava, recabará en la administración competente los certificados e información necesaria sobre:

- Cumplimiento de las obligaciones tributarias
- Cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Departamendu aldetik ofizios egiaztatzearen AURKA NAGO.**
ME OPONGO a la comprobación de oficio por parte del Departamento de Agricultura de la DFA

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	2022 URTEKO nekazaritza-eta abeltzaintza-sektoreei laguntza-eskaera SOLICITUD DE AYUDAS AL SECTOR AGRARIO Y GANADERO 2022
--	--

ESKATZEN DU: Patata eta azukre-erremolatxa ekoizteko eta abeltzaintzako ustiatzietarako laguntza

■ SOLICITA: ayudas destinadas a la producción de patata, remolacha azucarera y a las explotaciones ganaderas

- ERREMOLATXA – PATATA / REMOLACHA-PATATA:
- BEHI-AZIENDA / VACUNO:
- ARDI-AZIENDA / OVINO:
- AHUNTZ-AZIENDA / CAPRINO:
- ZALDI-AZIENDA / EQUINO
- TXERRI-AZIENDA / PORCINO
- UNTXIAK / CONEJOS
- HEGAZTI-HAZKUNTZA (OILOAK ETA OILASKOAK) / AVICULTURA (GALLINAS/POLLOS)

ADIERAZTEN DUT: ■ DECLARO:

Batzordearen Jakinarazpenean jasotako laguntza-erregimenari dagokionez, Covid-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan, ekonomia babestera bideratutako Estatuko laguntza-neurriei buruzko denborasparruari dagokionez aurten eta aurreko bi urteetan:

■ Que, en relación con el régimen de ayudas recogido en la Comunicación de la Comisión referidas al marco temporal relativo a las medidas de ayuda estatal destinadas a respaldar la economía en el contexto del actual brote de Covid-19, durante el año en curso y los dos anteriores:

- EZ DUT LAGUNTZARIK JASO/NO HE RECIBIDO AYUDAS:**
- AFA-REN BAKARRIK /SOLO DE LA DFA:**
- BESTE ERAKUNDE BATZUENAK (EUSKO JAURLARITZA) /DE OTRAS ENTIDADES (GOBIERNO VASCO):**

- Baimena ematen diot afari Laguntza-ARAUBIDE honen pean jasotako beste erakunde batzuen laguntzak kontsultatzeko**
Autorizo a la DFA a consultar las ayudas recibidas bajo este regimen de ayudas de otras entidades
- Laguntza-araubide honen pean jasotako beste erakunde batzuen laguntzak honako hauek dira:** Las ayudas recibidas bajo este regimen de otras entidades son las siguientes:

Data Fecha	Erakundea / Entidad	Azalpena / Concepto	Zenbatekoa Cantidad

Dirulaguntza hau jasotzeko derrigorrezkoak diren oinarri arautzaileak betez, honako hau ADIERAZTEN DUT:

LEHENENGOA.-Aitortzen du ez dagoela dirua itzultzeko inolako prozeduratan, ez eta inolako zehapen prozeduratan ere; hots, ez dago euskal administrazio publikoek eta beren erakunde autonomoek ematen dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan abiarazi baina oraindik izapidetzen ari den inolako prozeduratan.

En cumplimiento de las bases reguladoras para la obtención de esta ayuda DECLARO:

PRIMERO.- No estar incurso o incurso en un procedimiento de reintegro o sancionador, que habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por las Administraciones Públicas Vascas y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.


**2022 URTEKO nekazaritza-eta abeltzaintza-sektoreei laguntza-eskaera**
SOLICITUD DE AYUDAS AL SECTOR AGRARIO Y GANADERO 2022

BIGARRENA.-Aitortzen du arestian adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta hitzematzen dut hori egiaztatzeko beharrezko frogagiriak aurkeztuko ditudala eta, hala badagokio, bidezko egiaztapenak onartuko ditudala.

SEGUNDO.- Que conozco la normativa aplicable y que todos los datos que anteceden son ciertos y me comprometo a aportar los justificantes necesarios para su comprobación, así como a aceptar, en su caso, las verificaciones que procedan.

(Lekua eta data) ■ (Lugar y fecha)

Eskatzailearen/ordezkailearen sinadura eta zigilua ■ Firma de la persona solicitante/representante y sello

**Oharra (1)**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) jasotakoa betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu zuk ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko nekazaritza ustiatategien titularren fitxategien sartuko direla. Datu horien tratamendua Nekazaritza ustiatategierako laguntzak eta inbertsioak kudeatzeko egiten dira, baita nekazaritza jardueren erregistroa kudeatzeko ere.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

DBEOk onartzen dituen eskubideak, hau da, datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, aurka egin eta mugatzekoak, egikaritu ahalko dituzu. Horretarako, nahikoa duzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Bulegora (Probintzia plaza, 5. 01001, Gasteiz, Araba) joatea. Argibide gehiagorako:

<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, Helbide Elektroniko Gaitua (DEH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Nik, ordezkatzan dudan erakundeak, edo ordezkatzan dudan erakunde gobernu edo administrazio organoetan parte hartzen duen pertsona juridiko, fisiko edo erakunde bakar batek ere ez dugula sexuagatik zuzeneko edo zeharkako bereizkeria ekintzarik egiten jendea onartzeko prozesuetan edo funtzionamenduan, SLOko 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasunaren Legeko 24(2) artikuluan xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA.- Nik, ordezkatzan dudan erakundeak, edo sozietate honen gobernu edo administrazio organoetan parte hartzen duen pertsona bakar batek ere ez dugula egun zigor penalik edota administratiborik sexuagatik bereizkeriagatik edota Gizarte Ordenako Arau Hausteeri eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretutik eta emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko Hamalaugarren Xedapen Gehigarritik eratorritako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko arau hausteengatik (besteak beste, eta mugatu gabe).

Nota (1)

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. nos facilita van a ser incluidos en el Fichero de Titulares explotaciones agrarias titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para gestionar subvenciones e inversiones a explotaciones agrarias así como para la gestión del registro de actividades agrarias.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información:

<http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una Dirección Electrónica Habilitada (DEH) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente.

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO.- Que ni la organización a la que represento, ni persona jurídica, física o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de la entidad a la que represento realizamos actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 13 de la LGS y artículo 24(2) de la Ley de Igualdad de Euskadi.

SEGUNDO.- Que ni yo, ni la organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de esta sociedad, estamos actualmente sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social y Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres de 22 de marzo (entre otras, a título no limitativo).